Testua: Amagoia Mujika. Marrazkiak: Jorge Madejon

# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## KALE DOR KAYIKO ELKARTEA

Pasa den urtean Israelen arrebak jaso zuen Kale Dor Kayiko saria eta, aurten, Israelen txanda da. Seigarren maila gainditu du eta Deustoko unibertsitatean izango den sari banaketara doa, urdurieta pozik.

IRRIEN LAGUNAK + BIZIPOZA

*elkarlanean*







DEUSTO
A ZER ESKOLA PUSKA! GUSTATUKO LITZAIDAKE UNIBERTSITATERA ERE IRISTEA.
BAITA NIRI ERE! TIRA, HORRETARAKO BIDEA ZEIN DEN BADAKIGU: SAIATU ETA SAIATU.


HARA! IRITSI DA ISRAEL. ZORIONAK, LAN ASKO EGIN DUZU GAUR HEMEN EGOTEKO.
MUTIKO LANGILEA DA GURE ISRAEL. GAINERA, BIDEAN OSO LAGUN ONAK TOPATU DITU
BERA ERE LAGUN ONA DA...


Deusto
HARA!
TIO MANUEL DA...
ARRATSALDE ON,
LAGUNAK! POZIK NAGO,
OSO POZIK, BIHARKO IJITOAK
JENDE IKASIA IZANGO DIRELAKO ETA
BIZITZAN AUKERA ONAK IZANGO
DITUZTELAKO...


KALE DOR KAYIKO
ELKARTEA TIO MANUELEN AMETS
BATETIK SORTU ZEN. BERE AMETSA DA
IJITO GUZTIEK IKASKETAK
IZATEA.
BIHOTZA
HANDIA ETA
IDEIAK GARBI DAUZKA
TIO MANUELEK.







**Kale Dor Kayiko**

Irabazi asmorik gabeko Ijito Kultur Elkarte hau 1989. urteaz geroztik da martxan. Izenak “biharko ijitoak” esan nahi du. Elkartearen helburua ijitoei egungo gizartean moldatzeko behar diren tresnak bereganatzen laguntzea da.



Berdintasuna, elkartasuna, kulturartekotasuna eta errespetua dira elkartearen lau hanka nagusiak.



Ijito Herriaren kultura eta ohiturak ezagutzera emateko lan egiten du elkarteak, ezezagutzak sortzen dituen aurreiritzien kontra egiteko.



Bulego Nagusia:
Ondarroa 18 (Lonja), Bilbo
Telefonoa: 944598002
Faxa: 944598003
**Webgunea: www.kaledorkayiko.org**